

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	BIZARRAREN ETA BIBOTEAREN ZAINKETA (zeharkakoa)	Iraupena	30
		Berariazkoa	
Kodea	UF0535		
Lanbide-arloa	Irudi pertsonala		
Lanbide-eremua	Ile-apainketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ile-apainketa tekniko-artistikoa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Ile-mozketa eta teknika osagarriak (zeharkakoa)	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ilea moztea (zeharkakoa)	Iraupena	90

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0351_2 ILEA MOZTEA, ETA BIZARRA ETA BIBOTEA TXUKUNTZEA ETA MOZTEA gaitasun-ataleko LB1, LB2, LB3, LB6 eta LB7 lanbide-burutzapenekin, bizarra eta bibotea mozteari eta txukuntzeari dagokionez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Bezeroa eta profesionala babesteko, bizarra eta bibotea zaintzeko tekniketara egokitutako babes-neurriak hartzea.
- EI1.1 Bezeroa posizio anatomiko egokian jartzea eta janzkera egokiarekin babestea.
 - EI1.2 Teknika gauzatzeko posizio anatomiko egokian jartzea.
 - EI1.3 Bizarra eta bibotea zaintzeko teknikak aplikatzean gerta daitezkeen istripu-motarik ohikoenak azaltzea, haiek eragiten dituzten kausekin eta hartu beharreko neurri prebentiboekin erlazionatzeko.
- A2: Bizarreko eta biboteko ilearen ezaugarriak eta bezeroaren fisonomia aztertzea, eta haiek bezeroaren eskaerekin eta moda-estiloekin erlazionatzea, mozketa-forma edo -mota egokienak aukeratzeko.
- EI2.1 Bizarraren eta bibotearen zainketan eragina duten ezaugarri pertsonalak —ilearenak zein larruazalarenak— deskribatzea, eta grafiko batean markatzea egoera.
 - EI2.2 Deskribatzea bizarra eta bibotea mozteko dauden moda-joerak eta haiek obalo- eta profil-mota desberdinetan duten aplikazioa.
 - EI2.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean eta bozetoen laguntzaz, bizarrerako eta biboterako mozketa-mota aukeratzeko:
 - Obalo-mota.
 - Kopeta-mota.
 - Profil-mota.
 - EI2.4 Bezeroaren ezaugarriari, eskaerei eta beharrei buruzko informazioa jasotzeko fitxa teknikoak egitea.
 - EI2.5 Bizarra eta bibotea txukuntzeko formen edo moten ezaugarriak definitzea.
- A3: Bizarra eta bibotea txukuntzeko erremintak, osagarriak, tresnak eta kosmetikoak aukeratzeko irizpideak aztertzea, estilo desberdinen eta bezeroaren beharren eta eskaeren arabera.
- EI3.1 Bizarra eta bibotea zaintzeko prozesuan behar diren tresnak eta erremintak zerrendatzea.
 - EI3.2 Bizarra eta bibotea txukuntzeko erabiltzen diren materialak, tresnak eta erremintak desinfektatzeko eta esterilizatzeko metodoak aplikatzea.
 - EI3.3 Bizarra eta bibotea txukuntzeko prozesua eta faseak azaltzea, eta haietako bakoitzean erabiltzen diren produktu, baliabide eta tresnekin eta egindako aldatetekin erlazionatzea.
 - EI3.4 Bizarra eta bibotea zaintzeko kasu praktiko batean, hauek aukeratzeko:
 - Zeregina prestatzeko kosmetikoak.
 - Erremintak.
 - Erreminta bakoitzarekin egin beharreko teknikak.
- A4: Bizarra eta bibotea segurtasun- eta higiene-kondizioak betez mozteko eta txukuntzeko tekniken protokoloak bezeroaren ezaugarrietara egokitzea, eta trebetasunez eta abileziarekin aplikatzea teknika horiek.
- EI4.1 Aurpegiko azal iletsuaren egitura, fisiologia eta alteraziorik ohikoenak azaltzea.
 - EI4.2 Espezialista batek ikustea komeni den aurpegiko larruazaleko alterazio patologikoak deskribatzea.
 - EI4.3 Bezeroaren ezaugarriak eta eskaerak kontuan hartuta aukeratzeko zer akabera lortu nahi den.
 - EI4.4 Bizarra eta bibotea zaintzeko jarraitu beharreko urratsak deskribatzea.
 - EI4.5 Bizarra eta bibotea mozteko eta zaintzeko prozesua ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan pertsona bati egokitzeko kasu praktiko batean, alderdi hauek kontuan hartzea:
 - Aurpegiaren morfologia eta kalparrak.

- Larruazal iletsuaren patologiak.
- Ilea eta larruazala bizarra eta bibotea mozteko prestatzea.
- Txukuntzeko ordena.

EI4.6 Bizarra eta bibotea mozteko eta txukuntzeko teknikak haiek gauzatzeko jarrera anatomiko egokiekin eta bezeroa babesteko hartu beharreko segurtasun- eta higiene-neurriekin erlazionatzea.

EI4.7 Txukundu beharreko ilea prestatzeko erabiltzen diren kosmetikoak aukeratzeko irizpideak azaltzea.

EI4.8 Bizarra eta bibotea txukuntzeko eta mozteko teknikak aplikatzeko kasu praktikoetan:

- Bizarra eta bibotea txukuntzeko eta mozteko tresnak eta osagarriak prestatzea, ondo funtzionatzen dutela eta erabiltzeko baldintza higieniko-sanitarioak betetzen dituztela egiaztatuz.
- Bezeroa jarrera anatomiko zuzenean jartzea eta babestea, teknikak horiek aplikatzeko.
- Bizarra kendu aurreko, bizarra kentzeko eta bizarra kendu ondorengo produktu kosmetikoak ematea, larruazal- eta bizar-motaren eta teknikaren eskakizunen arabera.
- Bezeroaren ezaugarri anatomikoak, aurpegiaren morfologia eta ile-lerroaren norabidea kontuan hartuta txukuntzea eta moztea bizarra eta bibotea.
- Aurpegiko masajeak eskakizun teknikoek eta lortu nahi den efektuaren arabera ematea.
- Istripu-kasuetan, kondizio egokietan aplikatzea lehen laguntzak edo osasun-zentro batera eramateko eskaera.

EI4.9 Bizarra eta bibotea txukuntzeko eta mozteko teknikak aplikatzean gerta daitezkeen istripu-motarik ohikoenak azaltzea, haiek eragiten dituzten kausekin eta hartu beharreko neurri prebentiboekin erlazionatzeko.

EI4.10 Ile-apaindegi batean lehen laguntzak noiz aplikatu behar diren, osasun-zerbitzuei noiz deitu behar zaien eta bezero bat osasun-zentro batera noiz bidali behar den gomendatzen duten irizpideak definitzea, eta egoera bakoitzean zer jarduera egin behar diren azaltzea.

EI4.11 Bizarra eta bibotea mozteko eta txukuntzeko prozesuan istripua gertatzen den kasu praktiko batean:

- Erabiltzen diren produktu kosmetikoen erreakzio kaltegarrien zeinuak eta sintomak identifikatzea.
- Aurrez identifikatutako zeinuak eta sintomak detektatzean zer neurri hartu behar diren azaltzea.
- Ustekabeen ebaki bat egitean edo produktu kosmetikoak ematean erreakzio kaltegarri bat gertatzen denean kontuan izan beharrekoak eta aplikatu beharreko lehen laguntzako neurriak azaltzea.

A5: Bizarraren eta bibotearen zainketen prozesua eta han lortutako emaitzak ebaluatzea, eta emaitzak aurreikuspenetara egokitze egin beharreko aldatetarako proposatzea.

EI5.1 Bizarraren eta bibotearen zainketaren azken emaitza aztertzea, eta zerbitzuaren kalitatea zehazteko prozesuko zer alderdi ebaluatu behar diren identifikatzea.

EI5.2 Bezeroaren gogobetetze-maila —lortutako azken emaitzari buruzkoa zein jasotako arreta pertsonalari eta profesionalari buruzkoa— zein den jakiteko aukera emango duten galdera tipoekin galdetegiak egitea.

EI5.3 Bizarra eta bibotea txukuntzeko eta mozteko zerbitzuan hutsuneak eragin ditzaketen kausa teknikoak eta bezeroarentzako arretakoak identifikatzea.

EI5.4 Bizarra eta bibotea txukuntzeko eta mozteko zerbitzua ebaluatzeko kasu praktiko batean:

- Prozesuko kalitate-adierazleak identifikatzea.
- Aurreikusitako emaitzekiko gertatu diren desbideratzeak identifikatzea, eta desbideratzeen kausa teknikoak eta bezeroarentzako arretakoak arrazoitzea.
- Zerbitzua emateko prozesua eskematizatzea, eta detektatutako anomaliak haiek gertatutako fasearekin lotzea.
- Lortutako emaitzak espero ziren emaitzetara egokitze egin behar diren neurri zuzentzaileak proposatzea.

EI5.5 Prozesuko gorabeherak bezeroaren fitxan jasotzea, hurrengo zerbitzuan kontuan izateko.

Edukiak

1. Bezeroaren ezaugarrien eta morfologiaren azterketa.

- Morfologia, ilearen jaiotza eta kalparrak.
- Aurpegiaren morfologia eta aurpegierak aztertzea:
 - Aurpegiaren morfologia. Proporzioak eta geometria.
 - Aurpegiko beste elementu batzuk: kopeta, kokotsa eta lepoa.
 - Profila aztertzea.
 - Gorputzeko ezaugarriak: Gorpuzkera-motak.
- Teknikarekin erlazionatutako alterazio estetikoak.

2 Bizarra eta bibotea zaintzeko erreminten eta kosmetikoen aukeraketa eta prestatzea.

- Bizarra eta bibotea zaintzeko erreminta espezifikoak:
 - Guraizeak eta orrazia: aukeratzea eta maneatzea.
 - Labana: xafla irekikoa edo babestua.
 - Ilea mozteko makina.
 - Xafla.
- Erreminten garbiketa, desinfekzioa, esterilizazioa, mantentze-lanak eta kontuan izan beharrekoak.
- Bizarra eta bibotea zaintzeko kosmetiko espezifikoak:

- Kosmetiko bigungarriak.
- Lasaigarriak.
- Antiseptikoak.
- Desinfektatzaileak.
- Orbaintzaileak.

3 Bizarra eta bibotea txukuntzeko tekniken aplikazioa.

- Ilea eta larruazala bizarra eta bibotea mozteko prestatzea.
- Bizarra moztu aurretiko eta ondorengo higiene-zainketak.
- Jarraibideak eta kontuan izan beharrekoak.
- Guraizeekin egiten diren teknikak:
 - Lauki-formakoa edo zuzena.
 - Desfilatua.
 - Bakandua edo hustua.
 - Puntak moztuta.
 - Koskaduna.
- Labanarekin egiten diren teknikak:
 - Desfilatu sakona.
 - Desfilatua.
 - Arraspatua.
 - Beste batzuk.
 - Labanaren maneia: irekita, mozteko; itxita, orrazteko.
- Bizarra kentzeko makinaren teknikak eta maneia:
 - Mozketaren noranzkoa.
 - Inguruak nabarmentzea.
 - Luzerak moztea.
 - Beste batzuk.
- Bizar-xaflarekin moztea.
- Bizarra eta bibotea txukuntzeko zerbitzuen protokoloak egokitzea.
- Norbera babesteko profesionalen neurriak:
 - Higienea.
 - Janzkera.
 - Lanerako gomendatutako jarrera-higienea.
- Bizarra eta bibotea txukuntzeko prozesuetako bezeroa babesteko neurriak:
 - Janzkera.
 - Bizarra eta bibotea txukuntzeko prozesuetarako gomendatutako jarrera-higienea.
- Lehen laguntza bizarra eta bibotea txukuntzera aplikatuta.
- Bizarra eta bibotea txukuntzeko prozesuetako kalitatea kontrolatzea.
- Bizarra eta bibotea txukuntzeko lan teknikoaren kalitatea zehazten duten parametroak.
- Bizarra eta bibotea txukuntzeko prozesuetan lortutako emaitzetan lortu nahi ziren emaitzekiko izandako desbideratzeak zuzentzeko neurriak.
- Bizarra eta bibotea txukuntzeko prozesuak ebaluatzeko eta haien kalitatea kontrolatzeko metodoak.
- Prozesu hauetako kexak ebazteko teknikak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-erlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatara sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ile-apainketa tekniko-artistikoa